

TAILERRA



Sormena eta talde-lanerako teknikak

2021

GAZTEEN EUSKAL
BEHATOKIA OBSERVATORIO VASCO
DE LA JUVENTUD



Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTIZIA Y POLÍTICAS SOCIALES

TAILERRA: **Sormena eta talde-lanerako teknikak**



Sormena eta
talde-lanerako
teknikak

Bilbao

Noiz: 2021eko urriaren 6an, 13an eta 20an

Izena emateko epea: irailaren 14tik 23ra

Non: Bilbon, GEBren egoitza. Uriortu kalea, 11-behea

Ordutegia: 9:00etatik 13:30etara

Hizkuntza: gazteleraz

Leku-kopurua: 12 pertsona

Izena ematea: www.gaztebehatokia.euskadi.eus

Helburu orokorra

Prestakuntzan parte hartzen duten pertsonen sormenari eta sormen-prozesuarekin lotutako hobekuntza-teknikei buruzko hainbat kontzeptu ikasiko dituzte. Era berean, talde-lanaren garrantzia ere aztertuko da, diziplina anitzeko lantaldeak optimizatzearekin lotutako metodologiak.

Kontzeptu, metodologia eta lan-teknika horiek guztiak ikuspegi teoriko eta praktikotik aztertuko dira, ikasturtean azaldutako ideia guztiak modu naturalean barneratzeko.

Helburuak

- Sormenaren funtzionamendua eta hura sustatzen duten faktoreak ulertzea.
- Gure sormen-gaitasuna hobetzen laguntzen duten metodologiak, teknikak eta faktoreak ezagutzea.
- Gure sormen-gaitasuna eta gure lantaldeena edo ikasleena hobetzen lagunduko duten dinamikak praktikatzeko eta identifikatzeko.
- Taldeak eraginkortasunez kudeatzeko eta antolatzeko teknikak ezagutzea.
- Lantaldeetan egon behar diren rol nagusiak identifikatzeko, errendimendua eta eraginkortasuna hobetzeko.



Sormena eta
talde-lanerako
teknikak

Metodologia

70, 20, 10 metodoa erabiliko da: aurrez-aurrekoa, parte-hartzailea, teorikoa eta praktikoa.

Prestakuntza aurrez-aurrekoa izango da eta erakutsitako kontzeptuak modu naturalean barneratzeko parte hartzea sustatzen duen metodologia erabiliko da.

Eduki teorikoez gain, landutako gaiei buruzko ikuspegi zabalagoa eskainiko duten kasu praktikoak azalduko dira.

Era berean, adierazitako tekniken bitartez, modu sortzailean konpon daitezkeen arazoan planteamendu eta eztabaidarako tarte ere izango da.

Materiala emango da, ikastaroa behin bukatuta, hura egin dutenek ikasitako kontzeptuak erabili eta praktikan jartzeko tresnak izan ditzaten.

Hartzaileak:

Lehentasuna izango dute 12 eta 26 urte bitarteko gazteekin lan egiten dutenek edo lankidetzan dihardutenek (entitateetan, elkarteetan, herri-administrazioetan, enpresetan, ikastetxeetan, boluntariotzan....) Horrez gain, kontuan izango da izen-emateen hurrenkera.

- **Gazteen arloko langileak** (Gazteentzako Informazioa, udalak, aldundiak, gazte elkarteak eta aisialdikoak, eta beste entitate batzuk).
- **Hezitzaileak.**
- **Bigarren hezkuntzako ikastetxeetako orientatzaileak.**



Sormena eta
talde-lanerako
teknikak

Tailerraren egitaraua edo edukia:

- Sormenarekin lotutako definizioak eta kontzeptuak
- Sormenaren onurak
- Sormen motak
- Alboko pentsamendua
- Gabeziak, ondorioak eta blokeoak
- Konbergentzia eta dibergentzia
- Sormen-prozesuaren osagaiak
- Talde-lan egokirako jarraibideak
- Belbin metodologia eta rolak
- Design Thinking
- Kapelen teknika
- Ariketa praktikoak
- TIPS
- Baliabideak



Sormena eta
talde-lanerako
teknikak

Irakaslea:

Raúl García Piñero. “Saco de Juegos”-en sortzailea. Esperientzia ludikoen diseinatzailea, berrikuntza teknologikoan aholkularia eta Sormen-prozesuetako prestatzailea.

Erakunde antolatzailea:

GAZTEEN EUSKAL BEHATOKIA

Gazteria Zuzendaritza

Berdintasun, Justizia eta Gizarte politiketako Saila • Eusko Jaurlaritza

944031645 • gaztebehatokia@euskadi.eus



Sormena eta
talde-lanerako
teknikak